

**2011KO IRAILAREN 23AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hirua.

HILABETEA: Iraila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta erdietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA ONARTZEA. 2011ko uztailaren 28ko aktaren onespena.

2011ko uztailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA. Bide asfaltaketa.

Ezagutzera eman da, 2011ko irailaren 1ean, Kontratazio mahaiak egindako proposamena, bide-asfaltaketa obrak esleitzeari buruz:

“BIDE ASFALTAKETA OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO-MAHAIA.

Beasainen 2011ko irailaren 1ean.

Goizeko 9,00etan eratu da KONTRATAZIO MAHAIA, ondorengo kideek osatuta: M^a Mar Celaya González (BILDU) andrea lehendakari lanetan, Alkatearen orde, Iñigo Arrese Artabe (EAJ) jauna, Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ) jauna, , Josi Insausti Mujika (H1) jauna, Julio Herreros Serna (PP) jauna, eta Jose Ignacio Aramendi Lazkano (zerbitzu arloko arduraduna). Lurdes Alegria Lasa kontuhartzailea, eta Itziar Arostegi Apaolaza Idazkaria ekintzaren fede ematen duena.

Ez dira aurkeztu: Fernando Boada González (PSE-EE/PSOE) jauna eta Unai Baztarrika Otegi (ARALAR) jauna.

AURREKARIAK

I.- 2011ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak, publizitaterik gabeo prozedura negoziatuaren bidez kale asfaltaketa obrak kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza plegu administratiboa eta teknikoa onartuz. Lizitazio prezioa: 87.620,06 € BEZik gabe. Exekuzio epea: 3 aste. Esleipen-irizpidea, prezio baxuena.

II.- Prozeduran parte hartzeko, hiru enpresa hauei gonbidapena luzatu zitzaien: COPRISA, GUIPASA eta ASFALTOS URRETXU, S.A. 2011ko abuztuaren 26rako epea eman zitzaien eskaintzak aurkezteko.

3.- Epe horretan enpresa guztiek eskaintza aurkeztu dute.

4.- Bakoitzak eskainitako prezioa ondorengoa da:

Lizitazioa prezioa: 103.391,67 €, BEZ barne.

EMPRESAK / EMPRESAS	PREZIOA / PRECIO
COPRISA	87.596,75 + 15.767,42 (BEZ)
GUIPASA	86.401,01 + 15.552,18 (BEZ)
ASFALTOS URRETXU, S.A.	83.842,68 + 15.091,68 (BEZ)

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengoa proposatu dio:

Lehenik. Aipatutako kontratua, **ASFALTOS URRETXU, S.A.**ri esleitzea, **98.934,36 €tan, BEZ barne.** Egikaritze epea, bi astea izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamabost eguneko epean sinatuko da.

Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, **4.192,13 €ko** behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleituko da eta jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.”

Bozketa eginda eta aho batez onartu da, Kontratazio-Mahaiak egindako proposamena.

Ma Mar Celaya andreak eskatuta, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izapidetzearen ondorioz aurkezten diren eskaintzen kartazalak,

Kontratazio Mahaiaren aurrean irekitzea erabaki da, aldez aurretik lizitatzailerei irekitze-ekintza dataren berri emanez.

3.- OBRAK LIKIDATZEA:

a.- Erromesen aterpetxeko obrei buruzko azken ziurtagiria eta likidazioa onartzea.

2011ko uztailaren 18ko hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman da, adieraziz Erromesen Aterpetxea egiteko obrei buruz, CONSTRUCCIONES ITURRIOZek aurkeztutako azken obra-ziurtagiria, 25.056,30 €koa dela eta horrek suposatzen duela obrak likidatzen direla esleitutako baino kopuru handiagoan.

Obrak, 111.496,74 €tan esleitu ziren eta 114.107,30 €tan likidatu dira, obrak egiterakoan aurreikusi gabe zeuden hainbat lan exekutatu beharra izan delako. Horrek %2,34ko desbideraketa suposatzen du.

Idazkariak adierazi du, Legeak dionaren arabera, akatsak direnean %20ra bitarte ez dagoela kontratuaren aldaketarik egin behar. Aldiz, aldaketak suposatzen badu obra-unitate gehiago egitea, %10etik gora, kontratuaren aldaketa egin behar da.

Bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Erromesen aterpetxeko obrei buruzko azken ziurtagiria, 25.056,30 €koa, onartzea eta horren ondorioz obrak 114.107,30 €tan likidatzea onartzea.

b.- J. M. Iturriotz kaletik Joan XXIII kalera iristeko eskaileren obrei buruzko azken ziurtagiria eta likidazioa onartzea.

2011ko uztailaren 18ko hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman da, adieraziz J. M. Iturriotz kaletik Joan XXIII kalera doazen eskailerak egiteko obrei buruz, IKENAK aurkeztutako azken obra-ziurtagiria, 2.610,58 €koa dela eta horrek suposatzen duela obrak likidatzen direla esleitutako baino kopuru handiagoan.

Obrak, 50.448,75 €tan esleitu ziren eta 57.826,67 €tan likidatu dira, obraren azalera handitu egin delako eta horren ondorioz obra gehiago egin delako. Horrek %15ko desbideraketa suposatzen du.

Idazkariak adierazi du, Legeak dionaren arabera, akatsak direnean %20ra bitarte ez dagoela kontratuaren aldaketarik egin behar. Aldiz, aldaketak suposatzen badu obra-unitate gehiago egitea, %10etik gora, kontratuaren

aldaketa egin behar da. Adierazi da kasu honetan ez dela kontratu-aldaketarik izan.

Bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

J. M. Iturriotz kaletik Joan XXIII kalera doazen eskailerak egiteko obrei buruzko azken ziurtagiria, 2.610,58 €koa, onartzea eta horren ondorioz obrak 57.826,67 €tan likidatzea onartzea.

4.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. Beasaingo ikastetxeei 2011-2012 ikasturtean dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea.

Ezagutzera eman da, 2011ko irailaren 13an Kultura eta Euskara batzordeak egindako proposamena, “Beasaingo ikastetxeei 2011-2012 ikasturtean eman beharreko dirulaguntzak arautzeko oinarriari buruzkoa.”

Adierazi da lehengo urteko oinarri berdinak direla.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek ondorengo iritziak aurkeztu dituzte:

Fernando Boada González jaunak (PSE-EE/PSOE): “Debería especificarse mejor el objeto de las ayudas, ya que el Departamento de Educación también da este tipo de ayudas y los colegios no las solicitan. Quizás estemos otorgando subvenciones sobre materias que no son de competencia municipal y además no se llega a concretar la rentabilidad educacional de las ayudas. También solicitamos que la distribución de las ayudas lo sea teniendo en cuenta la valoración que se otorgue a las distintas peticiones. Se establece que se subvencionará el 30% del coste de la actividad y, sin embargo, luego hau excepciones. Procedería modificar la redacción de las bases en aras a una mayor concreción de las mismas al objeto de que no resulten arbitrarias.

Nuestra postura será la de la abstención.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute eta horren ondorioz gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Irakaskuntza arautuaren eremuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeek egindako jarduera eta proiektuetarako oinarriak onartzea.

Bigarren. Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea adieraziz eskaerak aurkezteko epea 2011ko urriaren 31n amaitzen dela.”

5.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean informazio honen berri eman da:

BIZIGUNE

2011ko uztailaren 28an egindako Gobernu Batzordean erabaki zen, AYTASAREkin Udalak duen kontratua Bizigune programa aurrera eramateko luzatzea eta bide batez, AYTASARI errekeritzea, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko etxebizitzaren ikuskapena premiamenduarekin egiteko eta hori bete ezin daitekeenean arrazoiak zeintzuk diren adierazteko, Bizigune programan sartu nahi duten etxebizitzaren jabeei informatu ahal izateko.

AYTASAK zentzu honetan BIZIGUNERi bidaltzeko prestatu duen idatzia ezagutzera eman da eta ontzat emanda.

Aldi berean jakinarazi da, UDALAK AYTASAREkin duen kontratua, J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak burutzeko, urriaren 1ean amaitzen dela eta kontratuan arautzen duen baldintza pleguaren arabera, beste urte betez luzatzeko aukera dagoela. Horretarako, Arana kalea birgaitzeko batzorde bereziak proposamena egin beharko luke.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatzieta amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.